

Soka batek lotutako komunitatea

→ Gipuzkoaren lehen erreferentzia idatziaren milagarren urteurrena ospatu dute Tolosan, soka dantza batekin.

Jakes Goikoetxea

TOLOSA— Soka batek lotutako herrialdea erakutsi zuten Tolosan (Gipuzkoa). Agintariak eta alkateak eskutik helduta, hezur-haragizko soka bat irudikatu zuten soka dantzaren bidez. Berdintasunezko dantza bat da soka dantza, eta guztiak soka berekoak direla erakutsi zuten atzo. Jarduera politikoa izaten duten korapilorik eta zirpildurik gabe, elkarrekin dantzatu eta ospatu zuten duela mila urtekoa dela Gipuzkoaren lehen erreferentzia idatzia: *Ipuskoa*.

Hasi aurretik, alkate batzuk besteak baino lasaiago. Norberaren herrian jaietan edo dantza egiteko ohitura dutenak, lasaiago; gainerako mordoxka bat, urduriago. Azken entseguak arkupeetan. «Ondo egingo dugu», lasaitu zuen alkate batek beste bat, hankaren mugimenduei buruzko zalantzak argitu zizkion bitartean. Gipuzkoako 88 alkateetatik 70ek parte

hartu zuten. Baita Eider Mendoza diputatu nagusiak eta Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusieta-ko presidenteak ere.

Ekitaldi sinbolikoa, leku sinboliko batean, Euskal Herria plazan. Biribilean jarrita, ikusleentzako eta agintarientzako aulkiak. Haien atzean, terrazetako aulki eta mahaiak, beteta. Zeruan, sorbeltzen hegaldi jostariak; baita sorbeltz moderno bat ere, drone bat, irudiak grabatzen.

Dultzaineroak Gipuzkoako ereserkia jotzen ari zirela, eskutik helduta sartu zen agintarien eta alkateen soka luzea plazan: Mendoza, aginte makila eskuetan, guztien buru, eta jarraian alkateak, herrien izenen ordena alfabetikoaren arabera. Gipuzkoaren aniztasun politikoa, eskuz esku helduta. Batzuek irribarre lasaia; besteek irribarre urduria. Zapatilak eta sandaliak oinetan, plazako galtzada harrietan ezustekorik ez izateko.

Sokatik askatu, eta Mendoza bakarrik dantzatu zen. Bostehun bat lagun begira. «Ohere bat eta ardura handia izan da», azaldu zuen ekitaldia amaitutakoan. Ez dela dantzaria eta ez dakiela dantza egiten aitortu zuen: «Nahiz eta dantza xumea izan den, asko kostatu zait». Gustatu zitzaion ekitaldia, besteak beste «sokak irudikatzen duelako guztiok soka berekoak gara eta komunitate



Eider Mendoza dantzatzen, atzo, Tolosan. AITOR KARASATORRE / FOKU

indartsua eta sendoa gara». Duela mila urtekoa da Gipuzkoaren lehen erreferentzia idatzia: «Orduan dagoeneko baginen komunitatea».

Soka dantzak jarraitu zuen. Alkateetako batzuek dantza egin zuten herritarrei begira. Batzuek era batera, besteek bestera: «Bere herriko eran dantza egiten ari da bakoitza», argitu zuen ikusleen arteko aditu batek. Ikusleek txalo

egin zuten alkate talde bakoitzaren dantza saioa bukatutakoan.

Politikariak dantzan baino lasaiago aritu ziren atrilaren aurrean. Ospakizunen leloa ekarri zuen gogora Andu Martinez de Rituerto Tolosako alkateak: *Ipuskoa: Izanetik izena 1025-2025*. «Izenaren aurretik baginelako eta orain garena ize-nari lotuta dagoelako», mintzatu zitzaion entzuleei. Atzoko ospakizunak balio du, haren iritzi, «komunitate bat gara adierazteko, elkarri lotuta gaudela erakusteko». Euskarak trinkotutako komunitate bat: «Euskarak egin gaitu, batu ere bai».

Ezeizabarrenak Gipuzkoaren hiru ezaugarri nabarmendu zituen: berdinaletasuna, euskara eta herri ikuspegia. Berdinaletasunari dagokionez, gogoan izan zuen Tolosaldeko eta Goierriko uholdeetan agerian geratu dela herritarren eta erakundeen auzolana eta elkartasuna.

Mendozak, hasteko, dantza-

ren garrantzia eta sinbolismoa nabarmendu zituen: «Pirinioen bi aldeetara kantatzen eta dantza egiten duen herria da gurea. Gipuzkoarrok dantzaren bidez ospatzen dugu gure izana eta ize-na. Dantzak gogorarazten digu elkarri loturik gaudela, elkarrekin osatzen dugula komunitatea».

Azurmendi gogoan

Herrialdearen hiru balio errotzen jarraitu behar dela uste du diputatu nagusiak: euskara, elkartasuna eta autogobernatzeko «borrondate irmoa». Joxe Azurmendi filosofoaren esaldi bat ekarri zuen gogora: «Euskararen hautua herri desegin bat berregiteko hautua da».

Et Incarnatus orkestrak eta abesbatzak Benito Lertxundiren *Oi lur* eta Xabier Leteren *Izarren hautsa* interpretatu zituzten. *Agur jaunak*-ekin amaitu zen ekitaldia. Alkateen lasaitua. Atzokoa ez zen estualdia izan Alazne Txurruka Debako alkatearentzat eta Kepa Zubiarrain Lazkaokoarentzat. Txurruka dantzaria izan zen, eta Zubiarrainek herriko jaietan dantza egiten du. «Goizeko entseguarekin moldatu naiz», azaldu zuen Zubiarrainek. Ekitaldia baino lehen egin zuten entsegua. Bestela, bakoitzak bere kontura moldatu behar izan du. «Hunkigarria izan da», Txurrukaren ustez.

Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren balkoitik zintzilik geratu ziren hiru oihalkorri, eta, horietako batean, Gipuzkoako armarraria. Ondoko eraikinetako balkoietan, historia eta distira askoko oihalik ez; etxekoan arropa esekita, eguerdi eguzki berotan lehortzen. Ospakizuna eraikin batean; eguneroko martxa besteetan. Herrialde bat, komunitate bat, soka berean. ●



«Sokak irudikatzen du guztiok soka berekoak gara eta komunitate indartsua eta sendoa gara»

EIDER MENDOZA

Gipuzkoako diputatu nagusia

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

Udakoa, kalean!
Zenbaki berezia
Denbora-pasak: 24 orrialde!

- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

3,80 euro
AEBN-eko 2025eko urte

aizu!

499
Ez da hain
funtzio berezia
denbora-
pasak irakurri
behar!

Ra-mik:
Izazpiz
baita
arropa

Nahiz
Catalan
arropa

IBON GAZTANAZPI
BESTE UR-BATZUETAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.